





BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

JUAN LUIS ZABALA

ez dut nik asmatu

Poesia

AURKIBIDEA

Hitzaurrea	8
Etorri	10
Berdin dio	11
Zalantza	12
Hire bila nabilen	13
Bustita	14
Bilanak	15
Inon izatekotan	16
Ez zarete	17
Ni gehiago naiz	18
Poltsa beroa	19
Adiskidetasuna	20
Pornoa	21
Poema hermetikoa	22
Sexua	23
Hemen egon da larria	24
Azken espaloien muturretan	25
Ulertzen ez dudana	26
Gizon bat lotan	27
Zero puntua	28
Etxe horiek guztiak	29

Hortxe bertan, urrun	30
Ezer hautsi gabe	31
Zedarritu gabeko etxe atariak	32
Aukerak	33
Idazlea idazle	34
Pertsonaren erdian	35
Bizi nahi	36
Zeharka	37
Hau amorrazioa!	38
Gero eta gela honetakoago	39
Autorretratu urduria	40
Hitzezko etxe hau	41
Garrasika hasi arte	42
Goroldiomin	43
Harrotzeko premia	44
Poeta hipokondriako gisa	45
Gaizki hitz egiteko premia	46
Ulergarria den orotik aparte	47
Ez dakit arnasa hartzen	48
Lo egin behar denean lo	49
Bizitzaren balkoitik	50
Ibai berria	51
Injustizia hau naizen bitartean	52

Espainia txakurra	54
ETA, ETA eta ETA	55
Noiz entzun zenuen lehen aldiz?	56
Egunkariak, politika eta bizitza	57
Gutxieneko erosotasuna	58
Hautsa etxe barruan	59
Denbora, heriotza eta beldurra	60
Pneumatikoen perspektiba	61
Artizarra eta txorizoa	62
Kultura	63
Neke hau	64
'A Place Called Distance'	65
Junkie 80	66
Hobeak hobe du	67
Egia poetikoaren kontzeptuaz	68
Hileta baten ondoren	69
Besteak ikusita	70
Arrazoiak	71
Klonatu, klonatu, klonatu	72
Txoria, leihoa, kantua	73
Mikel Laboaren errautsak Agiñan	74
Leonard Cohenen semea	75
Zergatik gustatzen zait Leonard Cohen?	76

Hitzaurrea

Bilduma honetan jasotako poema guztiak 1988tik 2017ra arteko tartean idatziak dira, eta denak zeuden aurretik ere irakurgai, paperean ez bada sarean, baina ez nik orain arte argitaratu dudan poema liburu bakarrean, *Hautsia natza* (BBK-Euskaltzaindia, 2000).

Liburu baten aterperik gabeko poema solteak dira, beraz, banan-banan idatziak denak, ez proiektu poetiko handiago baten barruan. Seguru asko ez luke mereziko denak paperezko liburu formal batean argitaratzea, baina pentsatu dut egokia litzatekeela, Booktegitik eskainitako aukera baliatuta, denak batuta irakurleen eskura jartzea sarean, irakurleek gero poemekin nahi dutena egin dezaten. Bada, adibidez, bildumako poemak kantu-hitz bihurtutakorik. Horretarako eta beste zernahitarako erabilgarri daude hemen.

Ez dut nik asmatu izenburua jarri diot bildumari, adierazteko neuk bilatu gabe, ia-ia “nahi gabe”, “etorri” zaizkidan poemak direla, hala esaterik baldin badago. Batzuetan poeta ez da bere poemak “errudun” sentitzen, haiek idaztea beste erremediorik izan ez duela iruditzen zaiolako. Sandro Giacobberen *Il Giardino Proibito* kantua etorri zitzaidan gogora horretaz pentsatu nuen batean; hortik izenburuaren ideia, eta baita atariko aipuarena ere, jakina.

Juan Luis Zabala

“Scusa tanto
se la vita è così,
non l'ho inventata io”

(“Barkatu,
bititza horrelakoa da,
ez dut nik asmatu”)

(Sandro Giacobbe, Il Giardino Proibito)

Etorri

Nahi dunanean etorri.
Itsasoari begira egongo naun,
begiak ortzaizean galduta,
eta kontatzeko istorio bat
izango dudala agintzen dinat,
tristea seguru askorik.

Berdin dio

Berdin dio
zure begien koloreak.
Berdin dio.
Berdin dio
zure galtzak duen zimurrak.
Berdin dio,
berdin dio.
Berdin dio
ekarriko zaituen autobusaren matrikulak.
Berdin dio zure irribarreak.

Baina berdin dio orobat
zu nor zaren ere,
berdin dio, berdin-berdin dio,
eta horixe da min ematen duena,
min berdin ez diona,
min guztiona dena,
min mina, min lehenetan lehena,
min mina, min azkenetan azkena,
min dena gure egiazko barrena,
min zer garen benetan dioena,
minaren min, minik minena
muinaren muin, muinik muinena,
errai bizi, gu zin-zinez garena.

Zalantza

Zalantza bat dut, ea argitzen didazun:
zergatik zaude nigandik hain gertu?

Zalantza bat dut, ea argitzen didazun:
zergatik zaude nigandik hain urrun?

Zalantza bat dut, ea argitzen didazun:
non nago ni benetan?

Zalantza asko ditut,
ezin izango dizkit inork argitu.

Hire bila nabilen

Hire bila nabilen
desio ezin asean zuloan.
Hire bila nabilen
gau eriazen lantxurdan.
Hire bila nabilen
amore emateko amorratzen.
Hire bila nabilen
neure burua galduta.
Hire bila nabilen
hi aurkitzeko beldurrez.

Nahiago niken, bai,
hi inoiz ez ezagutu izana.
Hire bila nabilen
hi aurkitzeko beldurrez.

Bustita

Euria ari du kolean.
Denontzat da euria,
milioika tanta erortzen nonahi.
Baina tanta bakar batzuk dira,
ez asko, ehunka batzuk akaso,
ileak, muturra eta eskuak
bustitzen ari zaizkidanak.
Zer pentsatuko ote dute
ustekabeen nireganatutako tanta horiek?
Harritu egingo bide dira
ni bezalako animalia harrigarri baten larruan,
patuaren burubidea ezin ulerturik
eta madarikatzen seguru askorik,
zerbait hobearen esperoan direnez eroriak.
Berdin dio.
Busti egiten naute,
nahi ez badute ere
ni aintzat hartu beharra dute,
nire larru sinesgaitz hau bustitzea egokitu zaie.
Ez dakit zer, baina banaiz.

Bilanak

Azken funtsean
bilan guztiak negatiboak dira,
derrigorrez, ezinbestean,
baita ekimenik egoki,
arrakastatsu eta ederrenenak ere,
dena amaitu egiten baita,
xahutu, ahitu, akitu, hil.
Horregatik, bizirik jarraituko badugu,
martingala beharrezkoa dugu,
inondik ahal dela,
inoiz ere ez heltzea
ezeren azken funtsera.

Inon izatekotan

Inon izatekotan hemen naiz,
hitz aldrebes-nahi hauetan,
bizia iraintzeko saio hauetan,
poesian.
Gainerakoan ez naiz
izan beharrekoa baino,
ezinbeste huts.

Hau ere, alabaina,
itsuskeria munstrokara hau,
matxinada lirdingatsu hau,
poesia,
lehen uste ez nuen arren,
neuk hala nahi ez izan arren,
bizia da.

Zakar, aldrebes eta gaiztoena ere,
inon denik poesiarik pozoitsuena,
odol garbi barneratzen du
biziak bere zainetan.

Izatekotan heriotza dateke
biziaren aurkako borrokan
poesiaz haragoko arma bakarra.
Baina hori ere hain du berea biziak!

Ez zarete

Nik aspaldi susmatu bezala,
egia zen, beraz, ez zaretela.
Edo bai, izan bai, zer edo zer edo,
baina deus gutxi orotara,
hutsaren hurrengo huts.

Neureak nau hala ere arduratzen
zuenak baino gehiago.
Neu ere ez naiz,
garrasi hauei lotuta
gaua erdi-erditik urratu nahi antzuan
batzuetan zer edo zer naizela uste arren.

Ez baita deus
garrasi hau gauaren erdian.
Ehiztari txar baten tiro galdua.
Kantu bat mila bihotzaren urragarri.
Lurrikara bat eta milioika hildako.
Inork ikusi edo sentitu gabeko istripua.
Gerra oso bat, luzea eta zabala.
Ahuntzaren gauerdiko eztula.

Amaitu da,
edo amaituko,
ezer izan gabe,
inoiz izan gabe.

Ni gehiago naiz

Ni gehiago naiz.
Begiratzen diozuen lekutik begiratuta,
ni gehiago naiz.
Nire tua urrunago heltzen da,
nire puzkerrak ozenagoak dira.

Ni gehiago naiz.
Ez da erraza nire mailara iristea.
Putzuak zapaltzean zipriztina indarrez
eta ezin zakarrago zabaltzen du nire autoak,
sistema anker asmatu berri baten bidez.

Ni gehiago naiz.
Ez duzue inoiz nire parera heltzerik izango.
Ezin dotoreago lurperatuak ditut hilak,
teleparailu bana dute nire seme-alabek,
ikaragarri handiak dira nire prostituten titiak.

Ni gehiago naiz.
Eta, begiratzen diozuen lekutik begiratuta,
beti izango naiz gehiago.
Ozenagoak dira nire korrokadak,
urrunago heltzen da nire erraien kiratsa.

Poltsa beroa

Bero haxe naun,
sei bat litro odol
hire ohea epeltzeko
ez beste ezertarako.

Adiskidetasuna

Bakarrik nagoenean
zuekin egon nahi dut.
Zuekin nagoenean
bakarrik egon nahi dut.

Zuen beharra dudala
nik aitortzen dut.
Gorrotatzen zaituztedala
ezin ukatu dut.

Zuekin nagoenean
bakarrik egon nahi dut.
Bakarrik nagoenean
zuekin egon nahi dut.

Gorrotatzen zaituztedala
nik aitortzen dut.
Zuen beharra dudala
ezin ukatu dut.

Pornoa

Eragotz iezadazu,
lipar batez,
beti jakin izan dudana
zainetan sentitzea,
egiarik gordinenari
neure barrunbeetan aterpe ematea.
Nous sommes de la merde,
itsusia naiz,
ahul eta endekagarria,
hiltzeko jaioa,
neke-penetan esperantzazurtz bizi ondoren.
Eragotz iezadazu,
lipar batez,
galtzailletza unibertsalaz
gogoeta goibeletan gainbeheratzea.
Erakuts iezazkidazu.

Poema hermetikoa

Ez duzu ba pentsatuko
nire poema bat ulertzeko
gauza izango zarenik?
Alajaina!

Zer uste duzu zuk ordea?
Zer uste duzu naizela?
Zer uste duzu zarela?
Zer uste duzu dela poesia?

Neure buruari barkatzen ez diodana,
nori eta zuri barkatu?
Non eta poesian?
Ederki eman ere!

Zergatik eta nire poesia
ulertzen ez duzulako?
Zer gara ba?
Baina, baina... pentsatzea ere!

Zer da ba poesia,
horrela hankapera dezagun?
Edo da edo ez da,
baina erdi-biderik ez du.

Inork ez du inoiz
zuk ulertzeko moduko poemarik idatziko.
Ezinezkoa litzateke,
inon direnak eginik gogotik ahaleginduagatik ere.

Sexua

Komuneko zulotik behera doan sexua,
gotor, gordin, zakar,
edo izaren leuntasunean babestua,
goxo, leun, itxaropen.

Ezin kabitua, ezin lasaitua,
ezin asea, ezina beti.

Lur-mamiaren deia, eguzkiarena, ilargiarena,
gailur gorena.
Kondo erabiliak katuen atzaparrek zabalduko
zabor poltsa muturretan ageri.

Egia eta gezurra, neurri gehiegizkoetan.

Hemen egon da larria

Hemen egon da larria.
Beste askotan bezala,
egonaldi labur eta arina egin du,
ezer larririk esan gabe.

Hemen egon da larria.
Ahitzean den idazteko gogo koxkor hauxe
besterik utzi gabe alde egin du.

Azken espaloien muturretan

Euri xehea eta lohia
azken espaloien muturretan,
kaleek izenak galtzen dituzteneko
muga zehaztu gabekoetan.
Hiri zati basak,
mendi puska narratsak,
elkarketa puntu antzua.
Bakardadea, tristura. Mundua
hiriaren eldarnio zorotik
zein izadiaren edertasun aratzetik
salbu, gordean.
Babesean.

Ulertzen ez dudana

Deus gutxi da ulertzen ez dudana,
gero eta kontu gutxiagok egiten dit ihes,
aski argi baitago dena azaldua egunkarietan.

Deus gutxi da ulertzen ez dudana.
Baina gero eta gutxiagorako balio dit ulertzeak.
Ez dakit ulertzen den.

Gizon bat lotan

Gizon bat lotan
izango naiz aurki.
Horrela definitzeko moduko
materia multzo epela, geldoa.
Itsu, mutu, gor, ergel,
ahantzurari emana akordua.

Joana, zuengandik banandua, errugabe,
ez zaizkit, ezereztuak, axola izango nik
zuetaz gaizki esanak,
zuen aurka gaizki eginak,
zuei ezer eman gabe neuk,
zuraren bihotza zulatzen duen iltzearen zitalkeriaz,
jan, edan, laztandu, xurgatu, gozatuak oro,
zuekin banatu gabeko patata tortilla guztiak.

Eguneroko errugabetasun aro premiazkoan,
materia multzo epela, geldoa,
ez dagoenaren pare, ez denaren antzeko,
aurki izango naiz
gizon bat lotan.

Zero puntua

Egin nezakeen eta egin ez dudan guztia daukat,
errieta beltza adierazten duen betoskoz, begira.
Eta ni, begi poetikoak ortzaizerantz,
bildots errugabearen itxura neureganatuta,
jatorrizko zintzotasun garbi baten jabe banintz bezala,
dena hutsetik hasteko puntuan ari naiz jartzen.

Etxe horiek guztiak

Etxe horiek guztiak
xume-xume
behetik gorantza
leiho txiki fluoreszentez
bata bestearen ondoan
ia zulo ilunik utzi gabe josiak.
Ama bat, aita bat, umeak...
poz, arazo, min, nahigabe
andana metro karratuko.
Maitasun ttiki hori guztia,
estu pilatua, miresten dut
ataritik gora begira,
urruneko tribuen
ohitura zaharrak,
ilbeterik biribilena
edo zerurik izartsuena
baino askoz gehiago.

Hortxe bertan, urrun

Negar egiteko tenorea
eta negargurarik ez.
Urrun dago dena,
unerik dardartienean ere
urrun
laztandutako larrua,
besarkatutako soina,
barru-bide abegikorrak.
Negarrik ez.
Eta gizon oso bat berriro,
sendo, trinko, prest, jantzia.
Negarrik gabe.
Hortxe bertan, urrun.

Ezer hautsi gabe

Zaila da ezer hautsi gabe
entzuna izatea.

Zaila da ezer hautsi gabe
nork bere burua ondo adieraztea.

Zaila da ezer hautsi gabe
ezer izatea.

Hala ere, batzuetan,
usterik gutxienean,
ingurukoari leun heldu
eta mundua, bizitza
arrotz zaizkigun
jostun-esku trebez
irun, irun eta irun,
iraun, iraun eta iraun
egiten dugu, egiten dugu
egiten dugu, ezer hautsi gabe.

Zedarritu gabeko etxe atariak

Zedarritu gabeko etxe atariak,
xederik gabeko haurtzaro puskak,
emaitzarik gabeko jolasak.

Jolastegietatik kanpo,
ikastegi ororen aurka,
mundua araurik gabe.

Oraindik ere bai, batzuetan.

Aukerak

Heriotza gurtzea
ez da beldurgarria,
heriotza gurtzea
zilegi da.
Bizitzari lotzeko
modua ere izan daiteke,
bizizalearen aukera
errespetatzen bada.
Bestela ez.

Ezkorrak eta uzkurak,
itunak eta ilunak,
hitsak eta hutsak
izan arren, itxiak
ezin gara izan.
Gutxiegiz dakigu horretarako.
Gutxiegiz dakigu beste ezertarako.

Idazlea idazle

Egoa ebaki banio, ez zen gehiago idazle izango.

Pertsonaren erdian

Gure gauek elkar besarkatu zuten.

Bi gau elkarren ilunak indarrez belzten,

bi gau elkarren hutsarteak bortizki zulatzen,

bi gau elkarren amildegia mugarik ezeraino sakontzen,

pertsonaren erdian.

Gero, pertsona egunaren argira joan zen.

Bizi nahi

Ezinak, ezinak eta ezinak.

Ezinegona eta egonezina:

ezin egon eta egon nahi;

egon eta ez egon nahi.

Ezinizana eta izanezina:

ezin izan eta izan nahi;

izan eta ez izan nahi.

Ezinbizia eta biziezina:

ezin bizi eta bizi nahi;

bizi eta, nahi gabe ere,

bizi egin nahi, beti bizi nahi.

Ezinak, ezinak eta ezinak.

Zeharka

Zeharka bizi naiz,
gogo guztiak zintzo hezita,
grina guztiak txarrantxaz hesituta.
Erruduntasuna harri eta zalantza porlan
duen horma garaia gainditzera
derrigortuta erabaki bakoitzeko,
ezkerretara jo aurretik
eskuinari muin egitera,
eskuinetara jo aurretik
itzuliko naizela promesa egitera.

Ezin naiz zuzenean bizi,
gauzeekin eta pertsoekin
bat-batean bat eginez,
izan naizenaren eta
nigandik espero denaren
zama txepeltzaitetik libre.

Eta honezkero zaila aldatzea.
Eta honezkero ahaleginduta ere alferrik.
Eta honezkero, zuzen-zuzenean, ezta nahi ere.

Hau amorrazioa!

Egiten dudana egiten dudala,
egiten dudana egiten dut.
Eta ezin egin egiten ez dudana.
Eta ezin egiten dudana ez egin.
Hau amorrazioa!

Gero eta gela honetakoago

“Darrera aquesta porta visc,
però no sé
si en puc dir vida.”
(Salvador Espriu, Una closa felicitat es ben bé del meu món)

Kanpoko munduari
handiegi eta argiegi iritzita,
gela honetan gordetzen naiz,
neure neurrira egindako eta argitutako
mundu aizunak sortzen eta irudikatzen,
kanpoko mundua izanik hala ere beti
oinarrizko eredu, ispilu guztien ama.

Beti igandea balitz bezala,
ogiarekin batera egunkaria
ekartzeko baino ez naiz irteten.
Kalea, jendea, herria, mundua
ukitu gabe neureganatzen ditut,
ferekak eta ukabilkadak,
musuak eta tiroak,
besarkadak eta leherketak,
gelak haiekin beregana nazan.

Ogia sukaldean dago
nolanahi utzia,
lilurarik gabeko azal,
bihotzik gabeko mami.
Egunkariak kale egiten du
kale izateko ahaleginean,
nik zuzenean bizitzeko
ustezko nahiari
zeharka baino heldu ezinik
huts egiten dudan bezala.
Ogia, kalea, bizitza,
jendea, herria, mundua,
zer ote dira benetan?
Jakin nahi al dut?

Gero eta gela honetakoago nago,
ilunpean nire aproposko munduekin jolasean.

Autorretratu urduria

Alferra naizenez,
lana beltz egiten dut
indarrak ahitu arte,
gero alferkerian lasai egoteko.

Errebeldea naizenez,
aginduak oro zuzen
betetzen ditut berehala,
gero lasai desobeditzeko.

Gaiztoa naizenez,
ahal bezain zintzo
jokatzen saiatzen naiz,
gero gaiztakerian lasai aritzeko.

Zorua naizenez,
arrazoiaren indarrari
begiratzen diot arretaz,
gero nire zoroa lasai bizitzeko.

Bakartia naizenez,
jendetasunaren arauak
zorrotz errespetatzen ditut,
gero bakarrik lasai egoteko.

Egoista naizenez,
hurkoa maitatzeko ahalmena
azken tantaraino zukutzen dut,
gero neure burua lasai maitatzeko.

Lasai bizi nahiaren
lasai bizi nahiz,
etenik gabeko dardara
urdurian bizi naiz.

Hitzezko etxe hau

Hotzaldirik minenean
hizkuntzaren barruan sartzen naiz
epeltasun bila.
Nahasmendurik itogarrienean
hizkuntzaren barruan sartzen naiz
harmonia bila.
Bakardaderik mortuenean
hizkuntzaren barruan sartzen naiz
konpainia bila.

Nire hizkuntzak, etxe gisa,
ikasleen etxebizitza alokatuen
antz handiagoa du
familia bakar eta egituratuko
etxe burgesena baino.
Edozerekin eta edozeinekin
egingo duzu topo noiznahi,
noiznahi dira gurean
istripuak edo borrokak,
goizaldera arteko hitzaspertuak
edo ustekabeko festak.

Teknikariek diote
normalizatu gabe dagoela
hitzezko etxe hau.
Etxekonekoen hizkuntzan, berriz,
gurea la casa de Tócame Roque da.

Nekagarria da batzuetan
horrelako etxe batean aterpetu beharra,
baina ikasteko balio du,
ondo pasatzeko ere bai tarteka.
Eta azken batean ni,
beste edozein bezala,
hotzaldirik minenean
hizkuntzaren barruan sar naiteke
epeltasun bila.

Hitzetan kiribilduta
babesten naiz
hizkuntzaren teilatupean.

Garrasika hasi arte

Garrasika hasi arte
ez nintzen jabetu
jende mordoa nuela
neure ondoan garrasika
aspaldidanik eta etengabe
infernurik gogorreneko
sugarretan erretzen
ariko balitz bezala.

Ezinago babesgabe,
minaren gainean min hartuta,
orroaren gainean orro egin nuen,
espantu zoroetan indarrak ahitu arte.

Isildu arte
ez nintzen jabetu
jende mordoa nuela
neure ondoan isildua
aspaldidanik eta etengabe
infernurik gogorreneko
sugarretan erretzen
ohituta balego bezala.

Goroldiomin

Bidez bide ibilian nabil,
ibili ahala goroldioa uxatuz.
Baina ez naiz nabilena.

Ibilian uxatutako goroldioa
nire pausoen lagun dut beti,
ez-egote baina bai-izate
berde, heze, ahanzturaraino
isil, sakon eta leunean
zentzumenez gairdiko lokarri.

Ez naiz nabilena.
Ibilian uxatutako goroldioa
dut ments gelditu orduko.

Batu gabe ere bat da
ibilian uxatutako goroldioa
ibilitako bide sakabanatuetan,
gero eta ugariago eta astunago
nigan, gero eta goroldioago.

Ez naiz nabilena.
Ibili-ibili eginda,
goroldioa baino ez naiz.

Harrotzeko premia

Diru asko duelako
harrotzen den jendea
ezagutzen dut,
eta dirurik ez izateaz
harrotzen dena.

Zorionsua delako
harrotzen den jendea
ezagutzen dut,
eta oinazetan bizitzeaz
harrotzen dena.

Asko maite duelako
harrotzen den jendea
ezagutzen dut,
eta inor maite ezinaz
harrotzen dena.

Neu ere horretaz guztiaz
sentitu izan naiz harro,
eta sentituko gerora ere.
Autoa zoro gidatzeaz bezala
zuhurtasunez txofer egiteaz,
abertzale izateaz bezala
abertzale ez izateaz;
eskuko telefonoari eusteaz bezala
eskuko telefonorik ez izateaz.
Bizi izanaz bezala bizi ez izanaz.

Bizitzak, hala ere,
berezko eta beharrezko baitu,
harrotasuna eskatzen dit:
honegatik ez bada hargatik,
gaur ezin bada bihar,
bihar ezin bada etzi,
etzi ezin bada atzokoaz,
harro egotea da kontua,
harro egotea da premia.
Harrotzen nauenaz ezin bada,
harrotzen nauena traizionatzeaz.

Inork ez du jakin behar,
neuk inork baino gutxiago,
baina harro esan dezaket:
harrotzen nauenari
harro nazan baino
ezin diot heldu.

Poeta hipokondriako gisa

Barruan poemak dauzkala
uste duen hipokondriakoa
da poeta.

Sentitu egiten ditu;
edo sentitzen dituela
uste du, ez eduki arren.

Ezer sumatu orduko
poema erauzten hasten da,
barrua zornatuko dion beldurrez.

Erauziari eskas irizten dio gero;
ez da hor mailurik ageri,
edo etorkizun jaurtigailurik.

Ez du poeman bere burua ikusten,
heste sobrea formoletan baino,
edo tumore onbera.

Agudo gaixotu nahi du berriz.
Poesiarekin sendatzen ez den
hipokondriakoa da poeta.

Gaizki hitz egiteko premia

(Hedoi Etxarteren Suzko liliak irakurtzen aritu ostean)

Gaizki hitz egin nahi dut,
gaizki hitz egiteko premia dut,
ilun, nahasi, zatar,
itxuratxarki, agramatikalki,
inklarki, moldegabeki.

Baina ezin dut gaizki hitz egin.
Oldartu egiten zaizkit
hitzak, sintagmak, perpausak,
orden zintzo baterantz; agerian ez
bada ezkutuan, harmoniarantz.

Bere onerako izango dela
jakinagatik ere, ezin diot
hizkuntzari nahita eraso.
Neure mihia labana batez
zauritzea bezain zaila zait.

Ahaleginak eta bi jota ere
ezin dut gaizki hitz egin,
ilun, nahasi, zatar,
itxuratxarki, agramatikalki,
inklarki, moldegabeki,
desordenatuki, desafinatuki,
zopasanoki, nahastimahastiki,
zorolerdoki, trapuzikinki.
A, a, a, a, atranketinoledubrekulia...!
Ez, ez. Ez da hori, ez da hori.

Ulergarria den orotik aparte

Bila ezazu, poeta,
babesleku bat
zure lanaren onarpenetik aparte,
hor beti izango baitzara
galtzaile argia.

Irudika itzazu
agentea eta editorea,
kazetaria eta kritikaria,
irakurlea eta liburu saltzailea,
dinamizatzaile kulturalak
eta kultura arloko agintariak
literaturaren alde oro har
edo zure poesiaren alde partikularki
laudorioaren aparrak topa egiten.

Egin zenezake
zeuk ere topa haiekin,
egarri arrunt batzuk asetzeko,
baina argi ibili
irribarre hori barruko
larru mintzetara atxikitzen bazaizu.

Ihes egin behar duzu
zauden lekutik,
jorratu duzun sailetik,
zauzkaten esparrutik.
Zaudenetik, duzunetik
eta zauzkatenetik ez ezik,
ihes egin behar duzu,
zeu ohartu gabe,
zoazenetik ere.

Bila ezazu, poeta,
babesleku bat
ulergarria den orotik aparte,
han beti izango baitzara
galtzaile argia.

Ez dakit arnasa hartzen

Ez dakit arnasa hartzen.
Ez dakit jaten eta edaten,
elikatzen eta hidratatzen.
Ez dakit larrua jotzen,
sexuaz gozatzen eta gozarazten.
Ez eserita eta ez etzanda egoten dakit,
hain gutxi zutik irauten, zuzen ibiltzen.
Ez dakit naizena eta daukadana
erabiltzen, kudeatzen, optimizatzen.

Edozein ikastaro nuke lagungarri.
Baina ikasi beharreko guztia ikasteko
bizitza osoa ikasten emanda ere
ez nuke inondik ere aski izango.

Ez dute oraindik asmatu, baina
ikasiaren ikasiz desikositakoa
berrikasten ikasteko ikastaroak
antolatuko dituztela uste dut,
ikastarorik gabe bizitzen ikasteko.

Lo egin behar denean lo

Lo egin behar denean lo
egiten duzun horrek,
jan behar denean jan,
edan behar denean edan,
jo behar denean jo
egiten duzun horrek,
utz iezadazu
lorik, janik eta urik,
larrurik eta damurik
gabeko gau honetan
zu eta zure kasta osoa
muintako minetaraino
baldar, zakar eta zatar
kakazten eta iraintzen.
Bion premia baita
desoreka harmoniko hau,
garai batean neuk ere,
bizitzaren kirol arauz ezjakin,
etsaigo gordin zela uste izan nuena.

Bizitzaren balkoitik

Aspaldi samar pasatu nintzen
ardura koxkor batzuekin
askatasunez bizitzetik
askatasun koxkor batzuekin
arduraz bizitzera.

Gozogabea, gizagabea, bidegabea
iruditu zitzaidan hasieran,
baina espanturik gabe laketu nintzen.

Gazteak mundua nahi du,
zaharra bizitzarekin konformatzen da.
Bizitzak balkoia du, gainera,
munduari begiratzeko,
eta aulki bat atsedean elbarrirako,
bero delarik freskagarri bat eskuan
–dirurik ezean eau du frigorifique–,
hotz baldin bada infusioa.

Zer askatasun behar du
bizitzaren balkoitik
munduari begira geratu denak,
nahi duenean begiak ixtekoaz aparte?

Ibai berria

Ibai luzea eraikiko duela
iragarri du Gobernuak;
mendi altuetan sortua,
itsaso zabalerainokoa.

Bihar jarriko dira abian
hondeamakinarik suntsitzaileenak
eta konputagailurik sortzaileenak,
langilerik gaituenek gidatuta.
Alferrikako apaindurarik gabe,
soila izango da, baina osoa.

Biologo, paisajista eta hidrologo
jakintsuenen laguntzaz gain,
abangoardiako artista ausartenena ere
izango dute ingeniariak,
edertasun plastiko adierazkorra
izan dezan ibilbide osoan,
ubidean nahiz inguruetan;
eta idazlerik irudimentsuenena
zientzialari genetikoek,
nortasun aberatseko izaki askotarikoak
bizi daitezen uretan nahiz ertzetan.

Elkartasun erakundeetako funtzionarioek
eta bake eskoletako doktoratuek
jolasaren eta amodioaren haziak
ereingo dituzte ibar osoan;
noiz aliritzira, poetek zirriborratutako ildoetan,
noiz zehaztasun osoz, lorezainekin elkarlanean.

Ibai luzea eraikiko duela
agindu du Gobernuak;
itsaso zabalerainokoa,
mendi altuetan sortua.

“Dena hutsetik hastearen antzekoa izango da”,
adierazi du, negarrez, lehendakariak.

Injustizia hau naizen bitartean

Pasio garbi batek sututa borrokarako prest
sentitu nintzen, bizitzan aurreneko aldiz
injustizia batekin aurrez aurre topo egin nuenean.

Harrezkero etenik gabe egokitu zaizkit
begi-bihotzen aurrean injustiziak,
aurrez inola ere ezin irudikatuzko norabideetan
eta elkarrekin molde askotako harremanetan,
solasean nahiz errietan, jolasean zein borrokan,
elkar laguntzen bezala elkar suntsitzen.

Heldulekurik gabeko
nahasmenduan zorabiatzeraino
geratu naiz injustiziei
eta haien bide gurutzatuei begira,
kasurik gehienetan haien aurka
ezer zehatzik egin gabe,
noiz zalantzak paralizatua,
noiz adoreak abandonatua,
noiz izuak erasana,
noiz erosokeriak alfertua.

Injustizia askoren aldeko
egin naiz ohartzeko.
Kasu batzuetan,
beste injustizia ustez latzagoen aurka
egiteko modurik justuena delakoan;
beste batzuetan,
ohituraren poderioz barneratutako
itsutasun inkontziente
edo ez horren inkontzienteagatik;
eta inoiz, besterik gabe,
neure baitako guneez ezkuturen batetik
irtendako orro zoroiei men egiteagatik.

Injustizien ahaide egin naiz,
injustizien lankide, lagun, adiskide.
Injustiziekin bazkaldu eta afaldu dut,
injustiziekin edan tabernetan goizaldera arte,
neuk ere injustiziatik dudana gero eta ohartuago.

Baina bizitza ez da bakarkako tren bidaia,
txartela patrikan txartel zulatzailea datorrenerako,
leihatilatik paisaiari begiratu beste kezkarik gabe.

Ez dut ahaztua, oraindik lagun dut
lehen injustiziak eragin zidan barruko sua.
Harrezkeroko arrazoi, arrazionalizazio,
erlazio eta erlatibizazio guztiak gorabehera,
grina hura dute ezinbesteko eredu
nire ardura eta asaldura guztiek.

Eta izango beti, nire bizitzako azken injustiziak
justiziaz dagokidan lekuan jartzen nauen arte.

Espainia txakurra

Berriro ukatu nauzu, Espainia, enegarrenez,
zeure parte egin arte lotuta naukazun arren.
Eta berriro madarikatzen zaitut, irmo,
berriro piztu didazu barruan anti-espainiartasun oldarkorra.

Ez dut ezer espainiar banakoaren aurka,
ez naiz zure aurka egiten den ororen aldekoa,
baina zure aurka nago eta zure aurka egin nahi dut.
Ez dut inoren aurrean agertzeko ikurrinarik,
baina mila bider erreko nuke gustura
zure bandera zatarkeria historikoz josia.
Ez naiz aberriaren ingeniari-tza politikoetan trebatua,
baina mila bider zirtzilduko nuke gustura
zure erresumatasun erridikuluaren gailur den koroa gezurtia.

Zeure nahi nauzu baina derrigorrean zeuretua.
Saiatuko al zara inoiz ni larderiarik gabe limurtzen?
Aintzat hartuko al nauzu inoiz,
zeuk aintzat hartua izatea nahi izaten duzun gisan?

Izan niezazukeen atxikimenduaren apurrak oro
suntsitzen dituzu nitaz arduratzen zaren bakoitzean.
Eztarria tratatzen didan hezurra zaitut,
Espainia nigan arrotz eta hilduraz barneratua,
Espainia amorrarazle amorratua,
Espainia zakar, zital, ausikilaria,
Espainia txakurra,
Espainia saiatuta ere ezin maitatua.

ETA, ETA eta ETA

Ez dakit zehazki noiztik
naizen ETAKoa,
ez dakit zehazki noiztik
nagoen ETAREN aurka.

Baina ETAKoa naiz
eta ETAREN aurka nago.

Ez dakit zehazki zergatik
naizen ETAKoa,
ez dakit zehazki zergatik
nagoen ETAREN aurka.

Baina ETAKoa naiz
eta ETAREN aurka nago.

Ez dakit zehazki noiz arte
izango naizen ETAKoa,
ez dakit zehazki noiz arte
egongo naizen ETAREN aurka.

Baina ETAKoa naiz
eta ETAREN aurka nago.

Ez dakit zehazki zertarako
naizen ETAKoa,
ez dakit zehazki zertarako
nagoen ETAREN aurka.

Baina ETAKoa naiz
eta ETAREN aurka nago.

Ez dakit zehazki zer den
ETAKoa izatea,
ez dakit zehazki zer den
ETAREN aurka egotea.

Baina ETAKoa naiz
eta ETAREN aurka nago.

Ez dut ETAKoa
izateko batere gogorik,
ez dut ETAREN aurka
egoteko batere gogorik.

Baina ETAKoa naiz
eta ETAREN aurka nago.

Noiz entzun zenuen lehen aldiz?

Noiz entzun zenuen lehen aldiz
botereak usteldu egiten duela?
Noiz entzun zenuen lehen aldiz
gutxi batzuen aberastasun oparoak
askoren miseria gorria duela funtsezko oinarri?
Noiz entzun zenuen lehen aldiz
publizitateak premia berriak sorraraziz
alienatzen gaituela?
Noiz entzun zenuen lehen aldiz
sistema kapitalistan talde ekonomiko indartsuenek
dutela benetako agintea,
politikaren eta politikarien gainetik,
hedabide nagusien konplizitatearekin?
Noiz entzun zenuen lehen aldiz
teknologiak komunikaziorako aukerak
biderkatu dituen garaian
inoiz baino arazo larriagoa dela inkomunikazioa?
Noiz entzun zenuen lehen aldiz
herrialde txiroetako jendeak sekulako kemena duela
edozein zailtasunen aurrean bizipozari eusteko?

Noiz entzun zenituen lehen aldiz
horiek guztiak eta antzeko beste asko,
eta zenbat bider entzun dituzu harrezkero?

Egunkariak, politika eta bizitza

Egunkarietan,
dena ez da politika,
baina politika da dena.

Bizitzan,
dena da politika,
baina politika ez da dena.

Gutxieneko erosotasuna

Poetarik minduenak ere
gutxieneko erosotasuna behar du
poemarik mingarrienak idatziko baditu.

Odola zainetan,
geldiune txiki bat bidean,
oinarrizko trepetak aterpean
eta esperantza deitzeko moduko
utzikin ñimiño bat.

Hautsa etxe barruan

Bere gisa utziz gero,
hautsa pilatu egiten da
etxeko bazter guztietan.

Utzikeriak pilatutako hautsak
ez du ohean etzanda
gustura dagoena ikaratzen.

Baina atsekabez datzanak
zehaztasun mingarriz dakusa
abandonuak pilatutako hautsa.

Denbora, heriotza eta beldurra

Gau batzuetan iruditzen zait
denbora, heriotza eta beldurra
elkarrekin afaltzen ari direla
nire barruko txoko ezkutu batean,
janariz eta edariz gogoberotuak
irudimenaren mugarik ilunenak
jauzi zabarretan gainditzen.

Pneumatikoen perspektiba

Ikusi al dituzue pneumatiko horiek guztiak,
ezin konta ahala pneumatiko,
etenik gabe bueltaka asfaltoaren gainean,
poliki-poliki higatzen?

Artizarra eta txorizoa

Artizarrari so egin nion,
gauaren zuloan dir-dir,
zure begien zilar-distira
urruna gogoan.

Bokatari kosk egin nion,
gorputz barruaren plazer,
txorizoaren dasta goxoa
bete-betea aho sabaian.

So egin nion bokatari,
gauaren zuloan plazer,
txorizoaren odol-distira
gogoaren betegarri.

Kultura

Ez dakit asmatu dudan, baina
neure miseria moral guztia
giza-ulerberatasunaren
isurbidean behera gozo
oztoporik gabeko jarioan
galtzen dela sentiarazten didan
edertasunari deitu izan diot beti
kultura.

Neke hau

Neke hau eskaintzen dizut,
zahardade hau,
zimurrera egiten duen apaltzea.
Baina hemen ere ni naiz,
hemen ere argitasun hori dago,
egon behar du derrigor,
harri koxkorra mendi egiten duena,
putzu txikia itsaso,
begirada bat mundu.

'A Place Called Distance'

Inon ezer izatekotan han naizelakoan,
Distantzia izeneko leku batean
babesten naiz ahal dudanean,
neuk ere ez dakit zeretik eta zergatik.
A Place Called Distance deitzen diot,
are urrunago eta arrotzago sentitzeko,
erdararik unibertsalenean inongotua.

Junkie 80

Ez nekien bizi nahi nuela.
Ez nekien bitza maite nuela.
Ez nekien bitza behar dudala.
Eta neure burua hiltzera jo nuen
ikusten nuen denaren kontra,
beldurrik gabeko herraz eta pasioz.
Larru beltzean hauts zuria
ume txiki bat bezala bilduta.

Hobeak hobe du

Hobeak hobe du,
benetan hobe bada,
are hobe izateko,
daukan abantaila
apaltasunean inbertitu.

Egia poetikoaren kontzeptuaz

Egia poetikoaren kontzeptuaz
pentsatzen ari nintzela,
beirazko bi pote bota ditut
plastikozko zaborraren ontzi horira.

Gero egia poetikoaren kontzeptuaz
pentsatzeari utzi diot,
baina poteak han geratu dira,
okerreko zaborrontzian.

Hileta baten ondoren

Hileta baten ondoren
etxera iritsi eta oheratu aurretik
zapatak erantzeko unea.
Hildakoaren zapatak gogoan,
hildakoaren ohe ertza irudimenean.
Heriotza eta bizitza elkarren ondoan,
ahaide eta haurride gisa,
lirismorik nahiz espanturik gabe.

Besteak ikusita

Besteak ikusita,
neure ondorioak ateratzen ditut.

Baina besteek ni ikusita
ateratzen dituzten ondorioak
okerrak iruditzen zaizkit beti.

Arrazoiak

Gustuko ez duzun
zerbait entzutean,
kontuan hartu esan duenak,
arrazoia eduki edo ez,
esan duena esateko
arrazoiak badauzkala.

Klonatu, klonatu, klonatu

Klonatu, klonatu, klonatu
egingo zaitut ahal dudanean,
birklonatu, arraklonatu, errekontraklonatu,
klonatu, klonatu, klonatu,
eta zutaz ezin nazkatuta
klonatu, klonatu, klonatu
egingo zaitut gero ere,
multiklonatu, superklonatu, hiperklonatu,
klonatu, klonatu, klonatu.

Txoria, leihoa, kantua

Anariri

Beldur eta erru zaharrez arinduta,
definizio eta ideietatik harago
hegan egiten asmatu dun
inork zitekeenik uste ez zuen bezala
inoiz ezinezkoa zenik pentsatu gabe,
berezko txoritasun kutsakorrez.

Porro debekatuen mutxikinekin
jorratu genuen iluntasun estuari
zeru argiak zabaldu dizkion
inork zitekeenik uste ez zuen bezala
inoiz ezinezkoa zenik pentsatu gabe,
berezko leihotasun kutsakorrez.

Hiregan ikusten ditinagu orain
geure buruak izan ez ginena izaten
bizitzari sabairik gabe emanak
inork zitekeenik uste ez zuen bezala
inoiz ezinezkoa zenik pentsatu gabe,
berezko kantutasun kutsakorrez.

Mikel Laboaren errautsak Agiñan

Orain hasi gara jabetzen
zenbat gauza esaten dugun
Mikel Laboa esatean.

Orain hasi gara jabetzen
zenbat bazter ezkutu dituen
–zein isil!, zein diskretu!–
gizon horrek hartuak
gure barruan.

Ez dakit zenbat maite dugun.
Ez dakit zenbat gustatzen
zaizkigun bere kantuak.
Geureegia egina dugu
harekin hitz horiek erabiltzeko.

Leonard Cohenen semea

Leonard Cohenen semea
zaindu dut ametsetan
neure besoetan hartuta.
Beste umeak bezalako da,
txikia eta ahula, babesgabea,
zeurea eta neurea bezalako,
baina Leonard Cohenena.
Nahikoa zen hori jakitea
jabetzeko besoen artean nuela
inoizko trinkoen atondutako
tristuraren etorkizuna.
Leonard Cohenen semea
zaindu dut ametsetan
neure besoetan hartuta.
Eta zaintzen jarraitzen dut,
nahiz eta besoetan ez bildu,
Leonard Cohenen semea
zaintzen esnatu eta gero ere.
Beste umeak bezalako da,
txikia eta ahula, babesgabea,
zeurea eta neurea bezalako,
baina Leonard Cohenena.

Zergatik gustatzen zait Leonard Cohen?

Zergatik gustatzen zait Leonard Cohen?
Ez litzaidake gustatu behar.
Zergatik gizon zuri aise diruztatu hori?
Astazakil birfindu hori, zergatik,
edulkorazioaren mugetaraino doazen
hileta baterako moduko doinu triste horiekin?

Tania Traore izan behar nuke gustukoena.
Sandra Tavuri, Okia Tamagato, Sukur Tafelnor,
edo Gaxuxa Etchetchipiaren kantu soil gertukoa.
Erosokeriaz, alienazioz, indukzio kulturalaz, ordea,
Leonard Coheni atxikitzen natzaio, dena emanda,
musikaren premiak estuen harrapatzen nauenean.

Zergatik joan nahi dut
Phoenix, Albuquerque, Oklahomara;
Austin, Detroit, Seattlera;
Memphis, Tucson, Wichitara;
Milwaukee, Denver, Ohiora?
Zergatik jantzen ditut beti galtza bakeroak?

Ez datozelako bat izan behar nukeena eta naizena,
ezin garelako guk nahi dugun huraxe izan
edo ezin dugulako gu garen huraxe izatea nahi.
Ezinezkoa delako izanaren eta izan nahiaren
bat egite erabatekoa, eta asmoaren kalterako
delako kasurik gehienetan hori lortzen saiatzea.

Hasi hadi orain Leonard Cohenengandik ihesi,
zer entzun beharko hukeen eta zer jantzi erabaki
eta hura gustatzeko ahaleginak egiten. Beltz izaten,
emakume, homosexual, LGBTIQ, txiro, ezindu, misiolari,
benetan izan beharko hukeena izatea izan nahirik.
Hasi eta Coca-Cola lata bihurtzen haizela sentituko duk.